

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko urtarrilaren 29tik otsailaren 4rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/03

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Huts-zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2021eko azaroaren 12koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den ehungintza eta jantzigintzako industriaren lan hitzarmen orokorra. **1756 xedapena - 1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/29

- **GORTE NAGUSIAK.** Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila sumendien erupzioek eragindako kalteak konpontzeko eta La Palma uhartea ekonomikoki eta sozialki berreskuratzeko presazko neurri osagarriak hartzen dituen abenduaren 17ko 28/2021 Errege Lege-dekretua. **1419 xedapena - 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK.** Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila mugikortasun elektrikoa, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedatzea sustatzeko energiaren arloko premiazko neurriak hartzen dituen abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege-dekretua. **1420 xedapena - 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK.** Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskala. Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskalari buruzko uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzen duen eta zerga ordainketako metodo eta araubide bereziak aurkezteko epe berria ezartzen duen abenduaren 28ko 31/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **1421 xedapena - 1 or.**

- **OSASUN MINISTERIOA.** Osasun Sistema Nazionalea. SND/44/2022 Agindua, urtarrilaren 27koa, zeinaren bidez eguneratzen den, goiko eta beheko gorputz adarren kanpoko protesien, agenesientzako ortoprotesien, gurpildun aulkien, ortesien eta linfedemaren terapiako produktuen katalogo komunari dagokionez, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komun zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren VI. Eranskina. **1426 xedapena - 42 or.**

2022/01/31

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Tributu eta aduanen kontrola.** Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 26koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez Zerga eta Aduana Kontrolerako 2022ko Urteko Plana onesten den. **1453 xedapena - 50 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 19koa, Trafikoko zuzendariarena, 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautuko duten neurri bereziak ezartzen dituen. **1456 xedapena - 12 or.**

2022/02/01

- **OSASUN MINISTERIOA. Mugak. Osasun kontrola.** Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 28koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiako sarbide puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzko 2021eko ekainaren 4koa aldatzen duena. **1540 xedapena - 2 or.**

2022/02/02

- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA. Haur hezkuntza.** 95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1koa, zeinaren bidez ezartzen diren Haur Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko ikasketak. **1654 xedapena - 35 or.**

2022/02/04

- **ANTOLAMENDUA.** PCM/59/2022 Agindua, otsailaren 2koa, Legez kanpoko Ingurumen Jardueri buruzko Informazioa Aztertze Bulego Zentral Nazionalea sortzen duena. **1779 xedapena - 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/01/31

- **SEGURTASUN SAILA.** EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 19koa, Trafikoko zuzendariarena, 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena. 500 xedapena - 17 or.

2022/02/02

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** 14/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren estatutuak onartzeko dekretua eta indargabetzen baitira Elkartek eta Hazitek programak arautzen dituzten aginduak. 553 xedapena - 3 or.

2022/02/04

- **OSASUN SAILA. AGINDUA.** 2022ko otsailaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bertan behera uzten baita 2021eko azaroaren 17ko Agindua, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori. 600 xedapena - 2 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/01

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 1/2022 Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, 2022. urterako Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak jakinarazten dituen. I-16 xedapena - 23 or.

2022/02/02

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2022ko urtarrilaren 19ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, abenduaren 14ko 8/2021 Foru Dekretu Arauemailea berresten duena; foru dekretu arauemaile horren bidez, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren kontra borrokatzeko neurriak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eremuko premiazko beste batzuk eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan beste neurri batzuk hartu dira. **I-83 xedapena - 1 or.**

2022/02/04

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 1/2022 Ebazpena, urtarrilaren 10koa, 2022. urterako Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak jakinarazten dituen. (Oker zuzenketa). **I-119 xedapena - 23 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2022/01/31

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/123 (EB) Erregelamendua, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, sendagaien eta osasun produktuen krisiaren prestakuntzan eta kudeaketan Sendagaien Europako Agentziaren zeregin indartuari buruzkoa. **L 20/1 xedapena - 37 or.**

2022/02/02

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/139 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2021eko azaroaren 16koa, zeinaren bidez osatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 (EB) Erregelamendua, antigenoen, txertoen eta diagnostiko-erreaktiboen Batasuneko bankuen izakinak kudeatzeari, biltegiatzeari eta berritzeari dagokionez eta banku horien funtzionamendurako bio-babeseko, bio-segurtasuneko eta bio-kontentzioko eskakizunei dagokienez. **L 23/1 xedapena - 10 or.**

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/140 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2021eko azaroaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 (EB) Erregelamenduko aplikazio-xedapenak, antigenoen, txertoen eta diagnostiko-erreaktiboen Batasuneko bankuei dagokienez. **L 23/11 xedapena - 10 or.**

2022/02/03

- Akats-zuzenketa, honako erregelamendu honena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/112 (EB) Erregelamendua, 2017/746 (EB) Erregelamendua aldatzen duena in vitro diagnostikorako zenbait osasun produkturen xedapen iragankorrei dagokienez eta osasun zentroetan soilik fabrikatu eta erabilitako produktuei aplikatu beharreko baldintzen aplikazio diferituari dagokionez. (DO L 19, 2022-1-28koa). **L 24/137 xedapena - 1 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO